







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %5,3 egin zuen behera apirilean, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Industrian %4,4 jaitsi zen, zerbitzuan %3,8 eta bizitegietan %10,4.

Industria alorretan beherakadak orokorrak izan dira urtearen hasieran. Hala, apirila arteko metatuari dagokionez, itsasontzigintzan %36,2 egin du behera, zementuan %31,4, beigarginan %12,3 eta kautxuaren eratorrietan %12,4. Siderurgian eta galdagintzan, berriz, lehengo kontsumo mailari eutsi diote (-%0,3).

#### Gas naturala

Apirilean gas naturalaren kontsumoak %7,2 egin zuen behera, 2012ko apirilean izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %31 jaitsi zen eta gainerako alorrena %2.

Apirila arteko metatutako kontsumoak %5,5 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta.







#### Erregaiak garraioan

Martxoan, garraioan erregaien kontsumoa %2,7 jaitsi zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %11,4 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %1,5 egin zuen gora.

2013ko lehen hiruhilekoari dagokien kontsumoa %1,3 igo da, iazko epealdiarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %11 egin zuen behera eta A gasolioenak, ordea, %2,9 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

**Petrolioaren kontsumoa munduan**

Apirilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 88,6 milioi kupel izan zen (2012ko apirilaren aldean, %0,9 igo zen). Hala, urtebetean, Europar Batasunean %3,9 egin zuen behera kontsumoak, 13 Mbd kantitatara iritsiz; AEBetan %0,9 jaitsi zen, eta 18,2 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan, aldiz, %5,9 egin zuen gora, eta 10,6 Mbd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabeteetan, petrolioaren eguneroko batez besteko kontsumoa %0,8 igo da, oro har, eta Txinan %3,9; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %4,3 eta %1,6 jaitsi da, hurrenez hurren.



**Energiaren kontsumoa Espainian**

Gas naturalaren kontsumoa %7 jaitsi zen Espainian, apirilean, 2012n izandakoaren aldean; eta apirila arteko metatutakoak %9,7 egin du behera, iazko epe berean izan zen metatutakoarekin konparatuta. Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%0,7), 2012ko apirilean izandakoarekin erkatuta, eta urte mugikorrari dagokion metatua %3,5 jaitsi da.

Errepideetan erregaien kontsumoak %12,3 egin zuen behera otsailean, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %12,1 jaitsi zen, eta %12,3 gasolioen kasuan. Urte mugikorrari dagokion metatua %7,1 egin du behera (%8 gasolinena eta %6,9 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %16,9 egin zuen behera otsailean, eta 2013an metatua %7,5 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa





### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolioa upelaren batez besteko prezioa 102,9 \$ (79 €) izan zen apirilen. Urte mugikorren batez besteko prezioak %4,5 egin zuen behera (+ %1,3 eurotan).

#### Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %16,8 igo zen otsailean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 27,9 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %3,4 egin zuen behera martxoan, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28,7 €/MWh iritsi zen.





#### Ikatzen prezioa

Otsailean Ikatzen prezioa 90,2 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %9,3 jaitsi da.

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %56 egin zuen behera apirilean, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 18,2 €/MWh iritsi zen. Duela hiru urtetik ez ziren prezio horiek ikusten.



#### Erregaien prezioa

EAEn, martxoan, gasolioaren prezioa 1,35 €/l izan zen eta gasolinarena 1,43 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %1,2 eta %0,6 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

#### CO<sub>2</sub>-ren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,9 €/t izan zen otsailean; 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %42,8 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.